

“Praktikatu #mendibiling” SUSTAPENAREN OINARRIAK

Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak, Almirante Arizmendi kalea, 9 - 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidea eta H-20818944 IFK dituenak, “Praktikatu #mendibiling” sustapena antolatu du. #mendibiling praktikatuz gero sariak irabazi ahalko dituzu; izan ere, 500 € banatuko ditugu erosketa-txarteletan.

Sustapen-ekintza hau 2019ko abenduaren 23tik 2020ko urtarrilaren 4ra, biak barne, Mendibil merkataritza-guneko establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroentzat egin da. Erosketak egin eta gero, sustapenaren funtzionamenduari jarraikiz, 50 euroko 10 erosketa-txartel banatuko dira saritan. Guztira 500 € banatuko dira erosketa-txarteletan.

SUSTAPENAREN FUNTZIONAMENDUA

Sustapenak irauten duen aldian Mendibil merkataritza-guneko edozein establezimendutan erosketak egiten dituzten pertsona guztiek (16 urtetik gorakoek) parte hartu ahalko dute sustapen honetan.

Bezeroak erregistratu egin beharko dira. Horretarako, parte hartzeko inprimakia bete beharko dute eta 20 euroko edo gehiagoko erosketa-tiket baten datuak sartu beharko dituzte merkataritza-gunearen webgunean: www.centrocomercialmendibil.com. Erosketa-tiket hori saria jasotzerako unean aurkeztu beharko da, 10 sarietako bat egokituz gero.

Tiket bakoitzarekin behin baino ezingo da parte hartu eta pertsona batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoko langileek ezin izango dute parte hartu, ezta merkataritza-gunean edo bertako establezimenduetan lan egin ohi duten langileek ere.

ZOKKETAREN FUNTZIONAMENDUA

Hamar sarien zozketak egun hauetan egingo dira: abenduaren 24an, 26an, 27an, 30ean, 31n eta urtarrilaren 2an, 3an eta 7an. Abenduaren 30ean, abenduaren 27ko eta 28ko irabazleak aterako dira, eta urtarrilaren 7an, urtarrilaren 3ko eta 4ko egunei dagozkien beste bi saridun.

Erosketa-txartelak jaso ahal izateko, irabazleak merkataritza-guneko gerentziaren bulegora joan beharko dira, eta bertan webguneko erregistroan emandako datuak egiaztatu beharko dituzte, erosketa-tiketa eta NANA aurkeztuz.

Irabazle bakoitzari 25 euroko bi txartel emango zaizkio, txarteletan agertzen diren Mendibil merkataritza-guneko saltokietan erabili ahalko dituztenak. Erosketa txartelak 2020ko urtarrilaren 31ra arte erabili ahalko dira.

PARTE HARTZEKO NAHITAEZKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

Sustapenean parte hartuz gero, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira; hortaz, oinarriak onartzen ez direla adieraziz gero, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da. Horrenbestez, Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak ez du parte-hartzailearekin aurretik hartutako inolako betebeharririk edukiko.

Sustapenaren sariak indarrean dauden zerga- eta lege-xedapenen mende daude.

Mendibil merkataritza-guneak sustapen honen baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea izango du, bai eta kanpaina amaitu baino lehenago sustapena deuseztatzeko eskubidea ere, baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude.

Irabazleak ezin izango dio saria beste inori laga eta sariak ez dira inolaz ere diruagatik trukatu.

Zozketaren irabazleek beren irudi-eskubideak laga eta baimentzen dizkiote Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari, eta, gainera, jabeen erkidego horrek haien izen-abizenak, bizi diren hiria eta herrialdea eta irudia erabili ahal izango ditu barne zein kanpo komunikabideetan merkataritza-gunearen publizitatea egiteko. Horrez gain, erabiltzeak ez die lortutako saria baino eskubide gehiagorik emango. Irabazleak ez badizkio Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari hemen aitortutako eskubideak baimentzen, ulertuko da irabazleak ez duela saria nahi. Horrenbestez, jaso baldin badu, itzuli beharko du.